

Galtzaundi

Tolosaldeko Herri Aldizkaria

12/2/3 | 357

- Jon Azpiroz
- Paula Kasaresen hitzaldia Orixeko institutoan
- Kirikiño, 25 urtetan 6.500 haur eta 220 begirale
- Berrobiko plazatik Berastegiko Eldua auzora
- Bodologuak



Altzoan Elkartea:
“Enpatia sortzen da
zure egoera berdinean
dauden amekin”

JANTZIAK
OSKI
oiñetakoak

3 hilabetetik 16 urte arte

Nafarroa etorbidea, 11
Telf. 943 651 264

SUPER EKO
SUPERMERCATUA

Oinezkoen eremua
Erosketak etxera
eramateko zerbitzua

Lagun Aro-ren partidarako,
VIP gunean, 2 sarrera
bikoitza zozketatzen dira.

Zumalakarregi, 4
943 65 09 01
Tolosa

aldama_tapia
aholkularitza

Foruen Etorbidea_7
20400_TOLOSA Gipuzkoa
Tel_943 650 375
Faxa_943 655 206
gtolosa@aldamatapia.com
www.aldamatapia.com

betaurreko
graduatuak

mó
kristalak barne
47€

Ekainetik hasi baloieraren itargi de 2017/02/29-ik aurrera,
komunitate itzazu optikan, kanpoan erabiltzeko.
Erlingoa da plaza beste promozio batzuekin.

MULTIÓPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan

San Frantzisko, 23 • Tel. 943 69 84 70 • TOLOSA



Argitaratzailea: Galtzaundi Euskara Taldea.
 Helbidea: Nafarroa etorbidea,
 6-behea.
 20400 Tolosa (Gipuzkoa)
 Telefonoa: 943 655 004
 Faxe: 943 654 983
 e-posta: erredakzioa@galtzaundi.com
 Webgunea: www.galtzaundi.com
 Koordinazioa: Naiara Roldán de Aránguiz.
 Erredakzio taldea: Felix Aiestaran, Igor Mujika

Kolaboratzaileak: Joseba Antxustegietxarte, Txomin Garmendia, Garbiñe Biurrun, J. Agustin Arrieta, Antton Izagirre, Manex Izagirre, Ibon Artola, Unai Igartua, May Gorostiaga, Jone Otxoa-Aizpurua, Artubi elkarte, Bilgune Feminista, Amaia Etxetxipia, Jone Gorostazu, Iosu Izueta, Txarli Gesteira

Publizitatea: Amaia Doyague
 Banatzaileak: Olatz Garmendia
 Juankar Arregi
 Zuzentzailea: Nora Olano
 Maketazioa: Zigor Agirrezabala.
 Diseinua: Zigor Agirrezabala
 GOIKK
 Azala: Galtzaundi
 Inprimategia: Antza.
 Tirada: 5.000 ale
 Lege gordailua: 55-906/91
 Frankeo Itundua: 37/94

GALTZAUNDI aldizkaria doan banatzen da Tolosaldeko 23 herri haueko denda eta tabernetan: Abaltzisketa, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa.

Galtzaundik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



TOLOSAKO
UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren, Gipuzkoako Foru Aldundiako Kultura eta Euskara Sailaren, Kutxa Fundazioaren, Tolosako Udalaren eta Tolosaldeko hainbat Udalen laguntza jaso du.



KULTURA SAILA
Hizkuntz Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundutako argitalpena



Erreportaia: Txakurkrosa, txakurra eta korrikalaria bat

Datorren otsailaren 26an Gipuzkoako Txakurkros Ligako laugarren jardunaldia hartuko du bere gain Tolosak. Korrikalari-txakur binomioak osatutako kirola, Tolosako kaleetara ekarriko dute antolatzaileek herritarren gozamenerako. Probaz eta kirol berri erakargarri honetaz mintzatu gara Ainara Gozategi, Larraitx Sorron eta Eneko Agirrerekin.

8-11. orrialdeak

Tolosako Aranburu Jauregian abenduaren erdialde partetik urtarrilaren erdialdera bitartean plazaratutako "Esna-Bidean" erakusketa arrakastatsua medio Galtzaundik Altzoan elkarteak, antolatzailea, gertutik ezagutu nahi izan du.

Elkarrizketa: Altzoan Elkarteak

14-16 orrialdeak

	Iritziaren leihoa: Jon Azpiroz	4-5
	Normalizazioa: Paula Kasaresek hitzaldia eskainiko du Orixe institutoan	6-7
	Eskualdeko albisteak: Kirikiño, 25 urtetan 6.500 haur eta 220 begirale	12-13
	Bidean: Berrobiko plazatik Berastegiko Eldua auzora	17
	Kultura: Mikel Pagadizabal: "Nagore Aranburu gure Yoda da"	18-19



Jon Azpiroz
Bedaioko Artubi Elkarteko kidea

4 Urte berri on! Osasuna eta pakea guztiokin! Ez dut eliz meza eman behar baina benetan esanda bi gauza, bi kontzeptu horiek izanik, zertarako besterik? Bai, seguruen oker nabil, badira beste behar gehiago. Zerrenda jarritz gero...

Orain zorra hor eta zorra han besterik ez da entzuten. Handia? Txikia? Nere ustetan zorrak inbertsio zorrak badira, urte askotan ordaintzekoak dira. Gastu zorrak badira ordea... Bai. Zorra, zorra da. Baina desberdina da festan hartutako gastu zorra edo etxe txiki batean hartutako zorra, ezta? Zorionez ez ditugu, Valentzia, Santiago, eta Espainiako probintzi askotan eraiki diren aireportu edo megaeraikuntzak. Funtzioa barneraturik gabeko eraikuntzak, erabilgarritasuna pentsaturik ez duten eraikuntza eta proiektuak. Horiek guztiak beste faktore batzuen artean orain gauden egoerara bultzatu gaituzte.

Garai estuagoak suertatzen ari dira eta aginte makila duenak erabakiak hartu beharko ditu. Zuzenak, okerrak? Herriari begira eta bere osotasunean hartu beharrekoak badira seguru hartu beharrekoak izango direla, nahiz eta gustukoak ez izan. Aurreko agintariak hartuko zituenaren antzera.

Garai hauetan guk herritarrok ere badugu asko egiteko. Zabor gutxiago erosi eta pilatu, birziklatu eta berrerabili, gure hirigunea zaindu, lorategiak ez zapaldu eta milaka gauza txiki asko. Gaizki egiten duenari joera gaitzetsiz. Zergatik ez? Ez gara poliziak ez, baina gure herria zaintzen ari gara modu batean. Herrilana eta herri zainketa egin behar dugu. Europako beste herrialdetan ez duzu zigarro txortan bat ere lurrean ikusiko, ez duzu semaforoa

Lankidetzaz

gorritz pasatuko. Eta lorategia zapaldu bai baina ez diozu lore bat ere kenduko. Giza heziketa eta herria, bakoitzarena, norberarena propioa denaren isla ematen da, gure lanak ez dira zerga ordaintzarekin bukatzen eta giza joera horrek ere udal gastua murrizteko balio du.

Gastua kontrolatu eta murriztu egin behar den garai honetan, aurrera pausuak ere eman behar dira. Badira behar handiak dituzten auzoak, oraindik oinarritzko beharrak ditugunak, espaloiak, argiteria, ura. Gauzak pixkanaka egiten ari dira, ondo, herriarekin, auzoarekin elkarrizketan eta hori ezin dugu ukatu eta imajinazioa behar dugu denen artean beharrezko diru hori nonbaitetik irtetzeko eta ondo bideratzeko, beharreko proiektu eta beharrezko beharretan gastatzeko eta inbertitzeko. Obra handiak, milioi handiko eraikuntza eta azpiegitura erraldoiak, urte batzuetan geratu egin beharko lirateke baldin eta egunerokotasuneko beharrak ordaintzeko iristen ez zaigun artean baldin eta, ordainduko denaren ziurtasunik ez badaukagu. Txikiari eta pobreaki erreparoz begiratu behar zaio berak pairatuko duelako gehien.

Garai hauetan hausnarketa egin behar dugu, argi dago zerga ordaintzarekin ez dugula nahikoa izango eta aurreko garaian ahaztu eta baztertu izan ditugun kontzeptu garrantzitsu batzuk bereganatu eta barru-

ratu, barneratzen saiatu behar gara berriro ere, lana, zintzotasuna, elkartasuna, gizatasuna, ingurunearen maitasuna, lankidetzeta, partaidetza, sustapena, herrilana, herrizaintza, herri... Bakarrik ez gara ezer eta herriaren, taldearen beharra dugu. Enpresak ezin du aurrera egin, langilerik gabe. Eta langileak ezin du aurrera egin lanik gabe. Denen artean adostasuna lortu beharrean gaude.

Kooperatibismoak horietako balio kontzeptu asko barneratzen ditu, langileak bere enpresaren jabe dira eta irabaziak direnean partitzen badituzte baina eltzetsuan ugari gordetzen du ere etengabe inbertsioak eta mondatetarako egiteko, garai txarrak direnean, denen artean elkartu eta bidezuzena bilatzen ahalegintzen dira, beharreko ideiak azalduz, uztartuz, produktibitatea hobetzeko iradokizunak eginez. Erabakiak hartu aurretik informatu, azaldu egiten da bazkide orori eta kritika positiboak bideratzeko bidea ematen zaio. Kooperatibak enpresak dira, baina bere funtsa ez da guztiz kapitala. Pertsonak dira sostengua nagusia, langilerik gabe enpresak ezin baitu hazi eta bizi.

Baditugu "enpresa" ugari modu bateko kooperatibismoa lantzen dutenak eta horixek dira ere, modu batean herria aurrera, bizirik jarraitzeko bidea egiten dutenak. Auzoelkarteak, kultura taldeak, ikastolak... Gastu soziala dira denak seguru, gastua ala inbertsioa? Denek eskaintzen dute zerbitzua,

denbora, lana eta konpromiso.

Ikastolak, eskola txikiak... bultzatu eta landu behar ditugu, gestio kooperatiboa dute. Herriari, gizarteari ikaragarriko zerbitzua eskaintzen dio. Hobekuntzak egin dituzte aurrera begira eta seguru zorrak izango dituztela. Denen artean borondatez ere sostengu ekonomiko berriak bilatzen saiatuz, elkarlanean, lankidetzan, elkartasunean. Bultzatu behar ditugu ikastolak, etorkizuneko langileak, enpresari eta agintariak izango direlako bertan hezitakoak eta herri baloreak barneratzen laguntzen duela, oro har hezten laguntzen gaituztelako eta gainera euskaraz.

Auzo elkarateak bultzatu behar ditugu, dinamismoa, bizitasuna, elkarkidetzeta, partaidetza dute beraien gestioaren muina. Nola bideratuko, koordinatuko, gestionatuko lituzke udalak bakarrik auzo elkarateak egiten dituztenekin? Ezta egiten duten elkartasun lan guztia? Zer motako elkarbizitza izango lukete auzo elkarateak eta zaindu beharrekoak dira giza taldearen esentzia, hots, pertsona taldean mantentzen duela.

Krisi garai honetan, industria aparta, gure ekonomiaren motorra dela ezin ukatu, lehen sektorea ere bultzatzeko garaia da. Gure herriak kalitatezko produktuak egiten ditu eta hortaz jabetzen ari gara orain, bada garaia! Bertako produktuak herri merkatuan finko

egon beharko luke. Konturatu ari gara, bertako letxugak zapo eta egitura hobea duela, tomatea puntuan jositakoa dela, babarruna (gure perla beltza), gazta, haragia. Baserritarrek gero eta produktu kimiko gutxiago erabiltzen dituzte, lehenik zerbitzu ibiltzen bazuten. Produktu guztiz freskoa eta garaikoa agertzen duela. Konturatu gara eta kontsumo taldeak gero eta gehiago daude. Baserritarrei ez zaie merkatuan prezioa beheratu edo erregateatu behar, gustuko ez baduzu tira aurrera. Beste batek erosi du. Ordean, baserritarrek hartuko dituzte bere neurriak. Nahiagoko du kalitatea jaitea baino produkturik ez kaleratzea, produktuarekin bere etxea, bere nortasuna eta izena daramalako, bere konfiantza eskaintzen duela, beste modu batera lan egiten ez dakielako. Ezin du berak etxean jango ez lituzkeen produktuak plazaratu. Lehen sektoreari behingoz begirunea eman behar zaio.

Kultur, gizarte eta kirol taldeen beharra ditugu kausa berdinengatik.

Garai gogor hauetan, modu askotan inbertitu daiteke eta gastu soziala ere inbertsioa da. Illusio eta grina mantentzeko, aurrera aterako garen kandelak izpi hori pizturik mantentzeko. Horretarako herriak jokabide zuzenak bideratu beharko dituzte eta hori da falta zaigun kultura, berreskuratzea behar dugun kultura. Gauzak errez lortzen saiatzeak eraman gaitu gauden le-

kura. Bidezidorra bilatzen dugu beti eta agian horrexek zapuztu du gure ingurua.

Denen iradokizunak behar dira, ekintzak bateratuz, sinergiak bilatu behar ditugu, gastuak murrizteko, guztion gestioa hobetzeko, gauzak zuzentzeko, giza produktibitate handiagoa izateko, krisi garaian ere sarea zabaltzeko eta handitzeko eta jende gehiagoren denborarekin, elkartasunarekin, kooperatibismoarekin aurrera egiteko, geu baikara gure herriaren jabe.

Hori da partaidetza, parte hartzea, iradokizun eta kritika positiboak egitea. Hori da politika egitea. Hartutako erabakiak zuzenak edo okerrak diren denborak esango digu. Duinak izan behar gara, sinestokorrak eta herriaren nahia eta esana entzun behar dugu. Oposaketa bai baina eraikitzailea, alternatibak eman eta beraien sostengua azaltzea, ez alternatiboak izatea, ez partidistak izatea. Ezin da sistemaren kontra joan, sistema eraldatu egin behar da gaizki dagoela uste badugu. Modu batean zuzen erabakitzen laguntzea. Iraganeko akatsez ikasiaz, etorkizunean ez daitezen okerrak izan gaur hartutako erabakiak. Herria modu zuzenean eraikitzea guztion lana da eta sinistu ezazue lan handia dagoela eta dugula egiteko.

Denok denen beharra daukagu! Jarrai dezagun bidea eginez eta joka dezagun gizatasunez.

Paula Kasaresek hitzaldia eskainiko du Orixe institutoan

6 Paula Kasaresek hitzaldia eskainiko du otsailaren 9an, 18:00etan, Orixe institutoko Gorosabel eraikinean. Hizkuntzalaria, antropologoa, Hizkuntz Eskubideen Behatokiko lehen lehendakari ohia,... euskararen transmisioan asko du esateko Kasaresek. Hitzaldiaren nondik norakoaz hitz egiteko, Orixe Hizkuntza Normalkuntza Batzordeko kide Bixente Alberdirekin bildu da Galtzaundi.

Erredakzioa

Alberdiren esanetan, "hizkuntzaren normalkuntzan hurrengo erronka euskararen transmisioari eustea izango da eta, horregatik, etxean euskara erabiltzeak duen garrantziaz kontzientziatu nahi ditugu gurasoak".

Bide horretan, Orixe ikasleen gurasoei aipatu

hitzaldira joateko gonbidapen berezia egin die Alberdik. Orixe ikasleen gurasoez gain Kasaresen hitzaldia jarraitu nahi duen herritar orok ere Orixe ateak zabalik aurkituko ditu. Hala azaldu digu Alberdik: "Paula Kasaresen maila intelektuala ikusirik, pena litzateke bere ekarpena ikastetxeko esparruan geratzea. Horregatik, herritar guztiak gonbidatuak daude hitzaldia entzutera".

Orixe ikastetxeko Hizkuntza Normalkuntza Batzordearen iritzian, herri handietatik -Tolosa, Ibarra, Villabona,...- datozen ikasle askok gaztelerara jotzeko ohitura dute eta, horregatik, "kezkatu" dira. Alberdiren hitzetan, "gure ikastetxean euskararen erabilera %70 eta %80 artean dago. Baina gazteleraren presentzia ere hor dago. Tolosako kaleetatik datozenek gazteleraz aritzeko joera handia dutela konturatuta gaude aspaldidanik. Gure ikastetxean Tolosaldeko ikasle asko dugu eta horiei esker dago euskara indarrean".

Bixente Alberdik jakinarazi duenez, "Mintzodro-

moaren harira egindako inkestetan euskal kultura zenbat kontsumitzen zuten aztertu genuen eta, beste hizkuntzen aldean euskarazko eskaintza urria izanik ere, euskaraz landutako kultura kontsumitzen dute. Orokorrean, gazteek euskaraz landutakoa kontsumitzen dute, modu naturalean". Hala ere, Alberdiren iritzian, "euskaraz kontsumitzeko kalitatezko produktu gutxi dago eta, gu bezala, erdal munduaren presiopean bizi dira gazteak".

Alberdikazaldu digunez, euskararen normalizazioa helburu, Orixe "irakasleen prestakuntza bultzatu dugu; departamendu barruko produkzioak, lanak,... euskaraz egiten ditugu; programazioak, bilerak, klaustroak ia %100ean euskaraz egiten dira eta zerbitzu guztiak euskaraz eskaintzen ditugu". Etxe barruko lanak egin ostean, orain, gazteen arteko hizkuntza ohituretan nola eragin aztertzen ari dira, besteak beste, ikastetxeen hizkuntza normalkuntzarako programa Ulibarrin parte hartuz.

Irakurle Taldea: Otsaileko tertulia

Eguna: otsailak 9, osteguna
Ordua: 19.30

Lekua: Tolosako Kultur Etxea

Irakurri beharreko liburua:
"Galerna"

Iratxe Esnaola


Galtzaundi 357
12ko otsailak 3

Aita zombia naiz, pelikulako 10 kamiseten zozketa!!!

Otsailaren 10ean zinemetan ikusgai egongo den "Aita zombia naiz" animaziozko pelikularen kamiseta eskuratu nahi duzula? Galtzaudirekin harremanetan jarri eta euskarazko zein pelikula gustukoaren duzun esan besterik ez duzu! Animatu zaitetz!

7-8 urte bitartekoentzako 5 kamiseta eta 9-11 urte bitartekoentzako beste 5 kamiseta ditugu.

Harremanetan jartzeko bideak: Galtzaundi (Nafarroa etorbidea, 6 behea), erredakzioa@galtzaundi.com eta 943 65 50 04 telefono zenbakia.



Baserriko produktu naturalak
Mahala baserria • LEABURU
Tel.: 943 673 499



Osagaiak
Desarrolloak
Instalakuntzak

BUDARI KALEA 15-BEHEA TEL.: 943 650 199
TOLOSA (BIPUZKOA) FAXA: 943 653 916

Zazpikoloroa Pirritx, Porrotx eta Marimotots

Galtzaundi Euskarra Taldeak antolatuta Pirritx, Porrotx eta Marimotots Tolosako Leidor Aretoan izango dira datorren martxoaren

31n. Bi saio eskainiko dituzte pailazoek "Zazpikoloroa" izenburupean; lehenengoa arra-

tsaldeko 16.00etan eta bigarrena 18.30ean. Ikuskizun hauetarako sarrerak Galtzaundiko bulegoan (Nafarroa etorbidea, 6 behea) bertan eskuratu ahal izango dira lñauterien ondoren. Egun zehatza www.galtzaundi.com webgunearen eta gainerako komunikabideen bitartez jakinaraziko da. Sarrerak 7 euroren truke eskuratu ahal izango dira.



ANTZA

Arteka

ESKULANAK

Nafarroa etorbidea, 10
TOLOSA
Tel.: 943 655 577



Arostegieta kalea, 2 - Tolosa

Txakurkrosa, txakurra eta korrikalaria bat



Datorren otsailaren 26an Gipuzkoako Txakurkros Ligako laugarren jardunaldia hartuko du bere gain Tolosak. Korrikalari-txakur binomioak osatutako kirola, Tolosako kaleetara ekarriko dute antolatzaileek herritarren gozamenerako. Probaz eta kirol berri erakargarri honetaz mintzatu gara Ainara Gozategi, Larraitz Sorron eta Eneko Agirrerekin.

Naiara Roldán de Aranguiz



Txakurkros edo canikross delako kirolaz xehetasun gehiago izateko nahiarekin Ainara Gozategi GuHau Txakurkros Elkarteko lehendakariari eta Larraitz Sorron eta Eneko Agirre korrikalariari galdeketa egin die Galtzaundik.

Definizioa

Lehenik eta behin kirola definitzea dagokigu eta horretan Eneko Agirre kirolariak lagunduko digu: "txakurkrosa, bikejoring-a eta skijoring-arekin batera, elurretan zein lurrean egiten den mushing-aren beste aukera bat da. Kirolari batek txakur bati lotuta joan behar du, txakurra beti aurrean doala. Txakurrak tiraka eramaten du korrikalaria menditik korrika doazela".

Txakurrak eta korrikalariak

lotuta joan behar dute; korrikalaria gerrikoaz eta txakurra arnes egokiaz. Enekok xehetasun gehiago eskaintzen ditu: "materiala berezia da. Arnesari dagokionean, tiroko arnes bat erabiltzen dugu, akoltzatuta egon behar du eta sokak ere amortiguadorea izan behar du, goma bat alegia. Gerrikoak 7 cm. baino zabalagoa izan behar du, minik ez hartzeko. Askok tiratzen duen txakur batek mina eman dezake eta, hasieran batik bat".

Kirol "simple"tzat definitu bada ere, badira kontuan hartu beharreko hainbat datu. Esaterako, neguko kirola den heinean denboraldia mugatua da eta tenperatura proben markatzaile zehatza da. Larraitz Sorronek zehaztu bezala:

"15 gradutik gorako egoeratan txakurrari korrikarik ez egitea aholkatzen zaio". Honakoa kontutan harturik, tenperaturak lasterketaren distantzian eragin zuzena izango du: "15 gradu baino gehiago eginez gero distantzia mozten joango da eta 18 gradu baino gehiago eginez gero lasterketa bertan behera geldituko da", dio Larraitzek.

Uneoro txakurren ongizatea bilatzen duen kirolak denboraldi mugatua izaten du; txapelketak urria bukaeran hasi eta martxo amaieran amaitzen baitira. Lasterketei dagokionean, jakin beharrekoa da 5-15 kilometro bitartekoak izaten direla. Hala ere, ohikoenak 5-10 kilometro bitartekoak bihurtzen dira.

Larraitz eta Eneko

Lasterketetan eskarmentua dutenak Larraitz Sorron eta Eneko Agirre dira, biak Guhau Txakurkros Elkarteko partaideak eta Eneko Agirre gainera, Gipuzkoako Txakurkros Ligako lehendakaria. Biei kirol berri honetan nola hasi diren galdetu diegu. Biek aitortu dute euren adibideak ohikoenak ez direla. Kirol honetan hastapenak egitea mendi korrikalaria izan eta txakurrekin entrenatzean datza. Hala ere, bi gazte hauen istorioetan kasualitateak indar gehiago izan du.

Eneko Agirrek hartzen du lehenik hitza: "nire engantxada mortada izan zen. Txakurra etxean banuen, berarekin korrika egitera joatea gustatzen zitzaidan, baina ez nuen karretan parte hartzen. Arraun-



laria naiz eta estropadetara ez baina entrenamenduetara txakurrekin joaten nintzen. Juan Mari Lujanbiok, txakurkroseko kamisetarekin ikusita animatu ninduen lasterketetan parte hartzea. Nirea estropada batetik abiatuta sortu zen. Ez da ohikoena”.

Eneko Agirrerren kasuan hortaz Juan Mari Lujanbiok, arraun patrioiak -eta gaur egun telebistan protagonista, El Conquistador del Fin del Mundo saioko kapitain gisara (sarrerako bideoan txakurkrosari erreferentzia egindakoa)-, izan zuen zeresana. Larraitzen kasuan ordea, Guhau Txakurkros Elkartearen stand batek izan zuen errua. Promozio ekimen batetik abiatuta kirol honetan erabat murgiltzera eraman zuen Larraitzek bere burua.

Bata zein bestea gaur egun Gipuzkoako Txapelketan erreferente dira eta Espainiako Kopan ere lehen postuak eskuratu ohi dituzte. Larraitzek Liga irabazteko aukera baduela azpimarratzen du gainera Enekok.

Kirol berria, erabateko hazkuntza

Kirol berria dela aipatzera koan benetan berria dela zehaztu beharra dago. Eneko Agirrek abiadura handiko hazkuntzari buruzko datu zehatzak eskaini dizkigu: “duela bost urte bi gipuzkoar baino ez ziren txakurkrosean aritzen. Bost urtetan antolatzea lortu dugu. Gaur egun, Gipuzkoako Ligan sei lasterketa ditugu, lau klub eta 65 bat korrikalari”.

Guhau Txakurkros Elkartearen sorrera

Guhau Txakurkros Elkarteak

-Tolosako probako antolatzaile eta Eneko eta Larraitzen klubaurte eskasa dauka. Berez, Aina Gozategik, bertako zuzendariak zehaztu bezala GuHau enpresatik sortua da. GuHau enpresaren egitekoa txakurren trebakuntza da; txakurren hezkuntza, txakurkumeak hezitzea, portaera arazoak konpontzea, ikastaroak, mintegiak, hitzaldiak eta erakustaldiak eskaintzea eta baita txakurrekin terapia eskaintzea ere.

Klubaren sorrera eskakizun batetik abiatuta eman zen. Horrela kontatzen du Ainarak: “Txakurkrosarekin loturarik ez genuen baina inguruko pertsona batzuk Beterriko lasterketan parte hartzea animatu eta jende gehiago ezagutzen hasi ginen. Honela proposatu ziguten txakurkros kluba sortzea. Gure erabakia aurrera egitea izan zen”.

Urte eskasa igarota, 16 partaidek osatzen dute taldea, tartean Larraitzek eta Enekok. Hala ere, proba bakoitzean partaide kopuru ezberdinak parte hartzen du. Espainiako Kopan parte hartzeak zailtasun gehiago aurkezten dituela kontuan hartuta.

Lasterketetan parte hartzeko zer behar den jakin nahiarekin galdera luzatu eta Larraitzek erantzuna eman digu: “lehenik, gogoa behar da eta bigarrenik, txakurrak gustatzea. Hauek ezinbestekoak dira, ondoren zaletasuna sortzen joango da. Txakurrekin arituta, korrika egitea errazten dizula ikusiko duzu. Txakurrak asko laguntzen du, beti ere denborak askoz hobek dira txakurrik gabe baino”.

Entrenamenduek hizketaldi luzerako beta ematen dute. Izan

ere, Enekok aitortu bezala kirol horren berri izateak entrenamenduak zehazturik eta azterturik ez izatea dakar. Zailtasunik ikusgarriena korrikalaria bera, txakurra bestetik eta azkenik biak batera entrenatu behar izatea da. Ainarak azaltzen duenez txakurraren eta korrikalariaren entrenamenduak gainera “nahiko antagonikoak” dira. Enekok gehiago dio: “biak entrenatu behar dira baina biak aldi be-



rean ezin dira entrenatu. Puzzlea osatzen joan behar dugu gauzak ondo egiteko”.

Astean zenbateko denbora eskaintzen dioten kirolari galdetean txakurrekin egunero egon behar direla zehazten dute eta korrika egitea ordea bakoitzak ahal duen mailan egiten dutela diote.

Lasterketetan edozein arraza edo tamainako txakurrek parte har dezakete, bete beharreko baldintzak ordea, ondorengoak: 12 hilabete beteta izatea, beharrezko txertoak egunean izatea (tribalentea, errabia eta txakurtegiatiko eztula) eta forma egokia izatea.

Txakur arrazarik hobesten

ez dela esaten badute ere, bai Larraitzek eta baita Enekok ere alaskanoak dituzte, txakur nahasketa bat tiroko txakur bezala propio sortutakoa. Arraza kontuak alde batera utzita, txakur-kirolari talde ona zerk egiten duen galdetu diegu korrikalariari. Enekok “hori galdera zaila!” erantzuten badu ere, berehala zehazten dituzte ezaugarri ezberdinak: txakurrak jabearengan konfiantza handia izatea.

Izan ere, lasterketa irteera bat irudikatzea besterik ez dago: 70 bat korrikalari eta beste horrenbeste txakur, publikoa, megafonia eta musika tartean direla. Txakur eta ja-



Galtzaundi 357
12ko otsailak 3



Txakurkros lasterketa Tolosako kaleetan barrena

Gipuzkoako Txakurkros Liga

Tolosa. 4. jardunaldia

Noiz: Otsailak 26, igandea

Ordua: 11.30

Ibilbidea: Trianguloa – Korreo – Gorritiko zubia
– Santa Luzia auzoa – Uzturre azpia – Irura (joan-etorria)

Otsailaren 26an Tolosako kaleak txakur festa bihurtuko dira. Izan ere, Gipuzkoako Txakurkros Ligaren 4. Jardunaldiaren ospakizunarekin 70 bat korrikalari euren txakurrekin lasterketan jardungo dira. Guztira 10 kilometro osatutako ibilbidea burutu beharko dute parte hartzaileek: Triangulotik abiatu, Korreo kalea hartuta Alde Zaharra zeharkatu, Gorritiko zubia hartu eta Santa Luzia auzoa bidegorritik barrena ibili, Uzturre azpitik igaro eta Iruraino helduta bueltako ibilbidea hartu beharko dute.

Ohiko proba honetaz gain, herritarrek parte hartzearen arrazoiak dutela uste badute lasterketa herrikoian parte hartzeko aukera izango dute. Lasterketa herrikoiak, egun berdinean, ordu berdinean izango du irteera; ibilbide motzagoa eskainiz, 4,5 km. Eneko Agirrek, hala ere, materialarekin horren zorrotzak ez direla izango aurre-


ratzen badu ere, parte hartzaile bakoitzak bere arnesa eraman beharko duela jakinarazten du.

Etzeko txikienek ere probatze-ko aukera izango dute festa egun honetan. Zerkausiko zuzenean 100 metroko ibilbidea prestatuko da haurrei gozamenerako parada eskaintzeko. Ekimen hau sari banaketa egin ostean hasiko da.

GuHau Txakurkros Elkarteko partaideak pozik eta eguna heltzeko desiraz badaude ere, probaren antolakuntzak bere zailtasunak izan dituela aitortzen dute. Lehen aldia izateak eskaintzen du zailtasunik handiena, hala ere baikortasunez ekiten diote lanari Ainara Gozategik, Larraitz Sorronek eta Eneko Agirrek. Eta jasotako laguntza ere eskertu egin dute. Orain entrenamenduetan jarraitu behar eta otsailaren 26an tolosarren animoak jasotzea baino ez zaie geratzen.



bearen arteko konfiantza eza egonez gero txakurrak ez du aurrera egingo. Are gehiago, korrikalaria bere alde aldetik onena izanda eta txakurra bestaldetik korrikan primeran arituta ere, elkarren arteko harremanik egon ezean zaila suertatzen da elkarrekin lasterketa ona burutzea.

Lasterketek publiko aldetik erantzun beroa izaten dute. Hala ere, orain artean minoritarioa izan da, txakurkros munduarekin harremana dutenak gerturatzeko baitira batik bat. Gauzak honela, Guhau Txakurkros Elkartearen nahia, datorren otsailaren 26an, antolatzen ari diren Gipuzkoako Ligako lasterketa Tolosa herrira eramatea da. Herriko kaleetan barrena lasterketa korritzea, alegia. Herritarrek kirola ezagutu dezaten. 

Beti Nahi
galesteroa

Garaian garaiko janariak eta arraikieta bereziak

Tel.: 943 671 920
Errementari kalea, 16 • 20400 Tolosa


GORRI

Paper manipulaziorako makina eraikuntza
Konponketa eta mantenimenduak

Apatta industrialdea.
Baratzondo D 26. Ibarra
Tel.: 943 671 590.
Faxa: 943 673 916

SANZ
arraindegia

Tel.: 686 98 21 74
943 65 17 85

Gozotegia

Okindegia

ECEIZA

P. Gorosabel, 34 - Telf. 943 655 161 - San Francisco, 8 - Telf. 943 651 916



Ki 6.500 hau

Kirikiño Aisialdi Taldea ospakizunetan murgildurik dago, 25 urteko ibilbidea bete berri du. Hastapenetik gaur egun arte izandako filosofia eta hazkundeaz hitz egin du Galtzaundik Juanma Carreterorekin, egungo Kirikiño Aisialdi Taldeko arduradunarekin. Urte hauetan guztira 220 begiralek eskaini dizkiete 6.500 haurrei aisialdi ekintzak.

Erredakzioa

Juanma Carretero, egun Hirukide ikastetxeko irakaslea eta Kirikiño Aisialdi Taldeko arduraduna da. Bere istorioak, Kirikiño barruan duela urte batzuk izan zuen hasiera; ikastetxeko 5. mailako ikasle zela. Begirale lanetan ordea 1996. urtean hasi zen.

Kirikiño Aisialdi Taldearen hasiera, 1986-87 ikasturtean kokatu beharra dago. Orduan Txantxangorri izenarekin sortu zen, Eusebio Losada eskolapioaren ekimenez. Horrela kontaktzen du Juanmak: "Eskolapio ikastetxean sortu zen, Eusebio Losadak klaseak ematen zituen eta umei asteburuetan zerbait eskaini behar zitzaizela pentsatu zuen. Horrela sortu zuen ai-

sialdi taldea Xabi Espina, Andi Sanchez, Amaia Perales, Irene Larraza eta Antxon Iglesias begiraleekin batera, lehen hezkuntzako 5. mailakoei begira".

Sei begirale horiek egun 50 bilakatu dira eta kurtso bakar hura 300 parte hartzailetan bihurtu da. Izan ere, larunbatero Kirikiño Aisialdi Taldeak 50 begirale eta 300 haur biltzen ditu. Begiraleei erreparatuz Juanmak monitore guztiak "bolondresak" direla azpimarratzen du: "begiraleei ez diegu ordaintzen eta haiek badakite horrela dela. Ez zaigu batere kostatzen begirale berriak eskuratzea. Aurten adibidez begirale batzuk, pena handiarekin, kanpoan utzi

behar izan ditugu. Guri asko kostatzen zaigu ezetz esatea. Ilusio handia dute begirale lanetan hasteko, baina denei ezin zaie baiezkoa eman".

Begirale guztiak bete beharreko betekizuna, sendotza taldean egotea da. Izan ere, Hirukide ikastetxea bezala Kirikiño Aisialdi Taldea ere talde kristaua da. Juanmak horrela gogoratzen die bere ardurapean dauden begiraleei: "begiraleak gara baina umeak hezten ditugu, helburuak kontutan hartu behar dira".

Juanmak esan bezala kristau izateak eta aurrera eramandako jarraipena berezitzen du Kirikiño Aisialdi Taldea gainerako aisialdi taldeetatik. "Jarraipen handia egiten dugu urte osoan zehar", dio Juanmak. Izan ere, larunbatero umeekin biltzen dira, gurasoekin kurtso hasiera eta amaieran bilerak ospatzen dituzte: "harreman estua dugu haur eta gurasoekin, gurasoekin asko hitz egiten dugu", laburbiltzen du arduradunak.

Kirikiño haurrak hiru talde ezberdinetan banatuta daude: "Koxkorrak" (5. eta 6. mailak), "Bizkorrak" (DBH 1. eta 2. maila) eta "Helduak" (DBH 3. eta 4. maila). Adin tarte bakoitzari begira ekimen ezberdinak antolatzen dituzte begiraleek, beti ere "eskolako neska-mutilentzat

beraien denbora librean hezitzaileak diren ekintzak eskainiz", jasotzen du aisialdi taldearen helburu nagusiak.

Adin tarte horiei begira aisialdi taldeak udalekuak ere antolatzen ditu urtean hirutan; gabonetan, aste santuan eta udaran. "Oso arrakastatsuak" bezala definitzen ditu Juanmak. Txikiak Arabako Barrian izaten dute kokaleku, ertainek Belaguan eta nagusiek udaleku ibiltariak burutzen dituzte Pirineoetan barrera, Belaguan amaiera izanik. Belaguako udalekuak bereziak izaten dira. Izan ere, Juanmak zehaztu bezala "karpa batean gure moduluak jartzen ditugu, gurasoen laguntzarekin; ezer ez dagoen belazean kanpamendua muntatzen dugu".

Hizkuntzari dagokionean, Juanmari euskarak zer nolako papera duen Kirikiño galdetuta, aisialdi taldearen hizkuntza euskara dela erantzuten du. Zehaztasun gehiago ere eskaintzen du: "jarrera ona daukagu, gure helburuetan kokaturik dago, begiraleok konprometitu gaude, umei euskaraz zuzentzen gara, ekintzak euskaraz burutzen ditugu eta gurasoei bideratutako informazioa euskaraz edo elebitan jorratzen dugu". Umeen euskararen erabileraren neurtze aldera "Euskarametrea" ekintza martxan jar-

Kirikiño, 25 urtetan berri eta 220 begirale



tzen dute urtero.

Emaitzei dagokionean, arduradunak aitortu bezala haur txikienekin arazorik ez dute izaten, erabat euskaraz jarduten baitira, baina adinean aurrera egin ahala gehiago kostatzen zaie gazteek euskara erabiltzea. Hori dela eta Hirukide ikastetxeko euskara teknikariarekin harremanetan jarri eta begiraleen formakuntzan parte hartzeko eskatu zioten: "azken bi urtetan euskara teknikaria gurekin egon da begiraleekin antolatzen dugun asteburuan, irailan, urte osoko plangintza antolatzen. Euskara aldetik zer egin dezakegun, nola landu bideratzen digu".


25 urte irudietan

25 urte hauen ospakizuna antolatze aldera Kirikiño Ai-

sialdi Taldeak sei pertsonen osatutako komisio bat sortu du. Burutu duten lanik zail eta "potenteena" argazki erakusketan antolatzea izan da. 25 urte hauen ibilbidea jasotzen duen argazki erakusketa ikusgai egongo da urtarrilaren 28tik otsailaren 5era bitartean Tolosako Kultur Etxean, arratsaldeko 17.30-20.30 bitartean.

Bertan 25 paneletan bildutako argazkiak ikusgai egongo dira. Erakusketa prestatzeak lanik handiena suposatu dio komisioari. Izan ere, Juanmak esan bezala, 5.000 inguru diapositiba digitalizatu behar izan dituzte, guztiekin DVDA osatu eta erakusketan bertan proiektatu egingo dute.

Erakusketaz gain 2012. urtean zehar ohiko ekimenez gain 25 urte hauen ospakizunari

begira bestelako ekitaldiak antolatuko ditu Kirikiño Aisialdi Taldeak, tartean iñauteriak, argazki lehiaketa, afaria eta Kirikiño eguna. 

Datozen ospakizunak:


Otsailaren 5a bitartean.

17.30-20.30. Erakusketa Kultur Etxean, argazkiak, panelak, DVDA.

Iñauteriak. Willy Fog "Kirikiño munduari bira". Begirale ohi guztiak gonbidatuta.


Martxoak. Argazki lehiaketa
Apirilak 21. Esker eukaristia Hirukide San Franziskon, txarangarekin kalejira, afari erraldoia eta opari banaketa

Maiatza. Kirikiño eguna

 Galtzaundi 357
12ko otsailak 3



Korreoa, 39 20400 TOLOSA
Tel.: 943 671 414 Gipuzkoa



gizarte
kutxa

ZABALA
DESGUAZEAK
KUDEATZAILE BAIMENDUAK
EU2/111/04



BEOTIBAR INDUSTRIALDEA, 18 - BELAUNTZA
TEL./FAXA: 943 671 790 -
MUGIKORRA: 696 593 347



ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA
Foruak, 5-bis • TOLOSA
Tel.: 943 652 712



matilda
zure moda osagaren denda

Korreoa Kalea, 3
Tolosa

Altzoan Elkartea:

“Enpatia sortzen da zure egoera berdinean dauden amekin”

Tolosako Aranburu Jauregian abenduaren erdialde partetik urtarrilaren erdialdera bitartean plazaratutako “Esna-Bidean” erakusketa arrakastatsua medio Galtzaundik Altzoan elkartea, antolatzailea, gertutik ezagutu nahi izan du. Galtzaundi Altzoan Elkartearen saioretarako batera gerturatu eta bertan bilduriko gurasoekin mintzatu da, umeak jolasean, bularra hartzen, lotan... inguruan zeundela.

Naiara Roldán de Aranguiz

Erakusketa antolatzeak, eta gehien bat, inguruan atondu-tako ekitaldiak eskaintzeak, “hausnarketarako” aukera eman duela uste du Altzoan elkarreak. Hausnarketa aurrera eraman ahal izateko ordea, lokal edo areto baten beharra du elkarreak eta hori horrela izanik, eskaera luzatzen dio Tolosako Udalari.

Tolosako Kultur Etxeko hirugarren solairuko dantza gelan dute zita jarrita Altzoan Elkarreko partaideek. Bertara heldu eta dagoeneko zenbait ama euren seme-alabak altzoan hartuta dituztela umeen eguneko kontuen berri ematen diote elkarri.

Borobilean jarrita Itziar eta Lur, Eli eta Edur, Amaia eta Aiur, Mainer, Haizea eta Ihintza eta Elena eta Yera, besteak beste. Bilera irekia da eta denborak aurrera egin ahala guraso gehiago ere gerturatzen dira, gutxiak aretoa ama, aita eta seme-alabez betetzen doa. Guztira 20 bat familia hartzen ditu bere gain Altzoan elkarreak eta ekitaldiak kontuan izanik, familia gehiago edo gutxiago bilduko dira egun bakoitzean. Hala ere, Mainerrek dioen moduan “ez dago txartel bat Altzoan elkarreko bazkidea zarela esaten duena, erabat irekia da”.

Altzoan elkarrea, guraso el-



kartea dela argi utzi nahi dute eta iturria Ibarra "umetxoei masajetxoak emateko bilkuretatik" sortu zen; egungo helburu nagusia ordea, "partekatzea eta hausnartzea" da, amatasunez, aitatasunez eta seme-alabez.

Zer nolako beharra zegoen Tolosan tankerako guraso elkarte bat sortzeko?

Eli. Umea jaiotzerakoan Villabonako edoskitze taldean babesa emateko biltzen gara. Hilean bi ostiraletan izaten da, lehena eta hirugarrena. Baina nahikoa ez zela konturatu ginen. Guraso bezala beste kezka pila bat sortzen direla eta, horiei erantzuna emateko nahiarekin gehiagotan emateko bestelako kontu batzuk ere lantzeko biltzen hasi ginen: gorputz fisikoei lotutakoak, emozioei lotutakoak, ama bezala gizartean zer falta den edo ez den falta, gizartean zer behar dauden...

Zer eskaintzen dizue taldean biltzeak?

Itziar. Edoskitze luze bat daramazunean, umearekin denbora asko pasatzeko aukera egin duzula esan nahi du; eszedentzia bat edo jardunaldi murrizpen bat eskatuz. Eta ez bakarrik edoskitzeari begira, bestelako gaietan ere taldearen babes bat behar duzula esan nahi du. Zure egoeran dauden amen babesa behar duzu, gaur egun ohikoa ere ez delako. Milaka gai jorrazten ditugu, azkenean egunerokotasunean gertatzen dena eta gauza berriak konpartitzea bilatzen dugu.

Egoera berdinean dagoen jendearekin beraz elkar ulertze be-



rezia sortzen da...

Itziar. Hori da. Enpatia eta harreman berezia sortzen da zure egoera berdinean daudenekin. Niri hori ematen dit; ni bezala dauden emakumeekin egoteko aukera. Tarteka gizonezkoak ere azaltzen dira, nahiz eta ez agertu, hor daude gurekin. –Oraingo bilerara bi gizonezko gerturatu dira.

Gizonezkoak gutxiago dira, izan ere taldea amen behar batetik sortu da. Ama horien atzean aitak daude eta izugarri garrantzitsuak dira guretzat, baina bildu eta hitz egiteko beharra gehien bat amena da.

Non biltzen da Altzoan elkar- tea?

Elena. Eskertuko genuke Udalletxeak lokal bat uztea, gure errebindikazioa da. Gure gauzak utzi ahal izateko lokal bat behar-ko genuke, maiztasunez bildu ahal izateko, ekintzak antolatze-ko, materiala uzteko. Gehien bat negura begira, eguraldiak zaila egiten du ume txikiengatik espazioak bilatzea.

Itziar. Erakusketarekin ikusi dugu jende asko gerturatu dela ez bakarrik erakusketa ikustera

baizik eta baita bertan egotera –gela nagusia umeekin egoteko gune bilakatu zen-. Tolosan ez dago 0-4 urte bitarteko umeentzako espaziorik. Guraso ez zaren arte ez zara konturatzen. 2 urterekin umea ez bada eskolara joaten, galduta zaude.

Zer nolako emaitzak eskuratu dituzue "Esna-Bidean" erakusketa eta ekintza ezberdinak medio?

Eli. Erakusketaren balorazioa oso positiboa da, harrera oso positiboa izan du. Asmatu dugu ekintzak bere inguruan antolatzen, bestela ere mezua igorriko genuen baina ekintzak eskaintzearekin bizia eta dinamikoa bihurtu da. Gure helburua, bertaratutakoak gaiaren inguruan hausnartzea zen. Sentimenduak mugitzen duen gai bat da edoskitzearena, eta horrek hausnartetarako aukera ematen du. Ekintza egunetan aretoa beteta egon da eta hori positiboa izan da. Erakusketari esker, jende gehiagok ezagutu du Altzoan elkarte.

Jende berria erakartzea lortu duzue?

Itziar. Elkartearen helbu-

rua ere ez da kanpoko jendea guregana erakartzea. Taldea gure behar bat asetzeko sortu genuen. Egia da erakusketarekin hainbat hausnarketa berri egiten ari garela baina gure helburua babes taldea osatzea da. Gu ez gara inoren behar bat asetzeko sortzen; gurea baizik. Kontua ez da ez dakit nork guri jendea bidaltzea, guk jende horri lagundu ahal izateko. Norbait animatzen bada guk antolatzen ditugun ekintzetan edo taldean parte hartzeko, horretara irekiak gaude.

Edoskitze saioak eta bular- emate kolektiboak antolatu oi dituzue. Oraindik orain amei kostatzen al zaie kalean edo agerian bularra ematea?

Eli. Ez dut uste, kalean dagoneko gaituta dago. Umea jaio aurretik beldurra izan daiteke titia edozein tokitan ateratzeko, baina behin umea jaiota, oso erraz gaitutzen da. Badaude ordea, oraindik gaitutzeko bestelako mezuak: "ez daukat esnerik, ez da nahikoa..." Oraindik pediatria askok tankerako mezuak zabaltzen dituzte, erabat egia ez direnak; talde baten edo laguntzarako emagina baten babesa edukiz gero, oztopo horiek gaitutu daitezke. Tankerako mezu horiek dira gaitutu beharrekoak.

Itziar. Gaitutzeko beste kontu bat adinarena da. Umeak 6-8 hilabete dituen arte ez dago arazorik titia emateko, gizartearen ikuspegitik normal ikusi daiteke. Baina muga hori gaituta, gertuko zein kanpoko jendearen komentarioak hasten dira. Argi geratu beharko litzateke OME-OMSek eta Espainiako Pediatria



Elkarreak gutxienez 2 urteko edoskitzea gomendatzen dutela. Jendeak hori ez daki. Ezjakintasun handia dago.

Elena. Jende askok bizio modura ikusten du.

Zer nolako sentimendu izaten dituzue umeari bularra emateko garaian...

Eli. Denetik.

Maidar. Gauetan asko hartzen baldin badu, kentzeko gogoa ematen dit. Bakean sentitzeko beharra izaten dut. Baina beste batzuetan gogoz, inolako arazorik gabe emateko prest egoten naiz. Batzuetan gogorra da, besteetan erraza.

Elena. Egia esan fase ezberdinak pasa behar dira, fase batzuk oso politak dira eta beste batzuk oso gogorrak.

Maidar: Onura erabatekoa da. Prest bazaude egiten duzuna maitasunez eta amatasunez egitera, onurak erabatekoak dira.

Gogorrena zer izaten da?

Itziar. Umea denbora guztian gainean edukitzea, egunak eta egunak -galderei erantzuten dien bitartean umeari titia ema-

ten ari da, altzoan, eta altzoan edukitzearen keinua erakusten du-. Nik bi ume dauzkat eta bost urte'terdi daramatzat umeei titia emanaz. Batzuetan gogorra da eta oporrak hartu eta alde egiteko tentazioa izaten dut. Baina ezin dut. Nire aukera ezin izatea da, baina aukera guztiak bezala momentu batzuetan gogorra da. Oso lotura estua dago umearekin. Ordu asko ematen dituzu beraiekin, une polit askorekin baina baita momentu gogor askorekin ere. Ama gehienok momentu batez atzera egin eta bakarrik berriro egotea pentsatzen dugu. Izan ere, dagoeneko inoiz ez gara bakarrik egongo.

Elena. Taldeak horretan laguntzen du, pentsamendu eta bizipenak konpartitzen.

Eli. Kalean galdetzerakoan, dena polita izaten da umeen inguruan, baina errealitatea bestelakoa da. Badaude sentimendu batzuk erruduntasuna sortzen dutenak. Sentimendu horiek ere adieraztea inportante izaten da.

Taldeak babesa ematen dizue baina lan munduak zer nolako

babesa eskaintzen die gurasoei?

Itziar. Amatasun baja 16 astekoa izatea lotsagarria da, are gehiago, edoskitzea gutxienez 6 hilabetekoa izatea gomendatzen denean. Ez dauka zentzurik, lau hilabeteren buruan ama lanean egoteak. Izugarritzko kontraesana da. 6 hilabete gutxi iruditzen zait, baina gutxien gutxienik 6 hilabete izan beharko liriteke. Aitarena are lotsagarriagoa da; bi aste! Ez dizu ezta "aterritzeko" denborarik ematen.

Edoskitze-baimena ez da errealitatean oinarritzen. Eskatu ahala titia ematea gomendatzen dute adituek, horrek esan nahi du edoskitzea ezin dela programatu. Ez da erreala.

Eli. Zure aukera da lanera bueltatzea edo lan-murriztapena eskatzea. Asko dago egiteko. Zenbait lanetan umea gertu izatea ahalbidetu beharko litzateke, ume zaintza eredu berriak, etxetik lan egin ahal izatea... Lan mundura beranduago bueltatzea beste aukera bat da. Guztiak buruhausteak sortzen dira; lanera bueltatu nahi edo behar

eta umearekin denbora gehiago egon nahia...

Herrialde nordikoetako egoerari erreferentzia egiten diote bileran -3 urteko bajak, %100a kobratuz, lan batzuetan umea amarekin lanera, haurtzaindegiak lantokietan...-, gurean ikastekoak direla diote Altzoan elkarteko parte hartzaileek. Orain artean, amak mintzatu dira baina aita batek hitza hartu nahi izan du: "hemen dena familiaren esku uzten dute. Sistemak ez zaitu babesten. Zuk erabaki behar duzu, umearekin egon nahi izatekotan, epea luzatzea, zure kontura egin behar duzu".

Gizarteak ezarritako sistematik hizpide jarraitzen du bildurikoen esanetan: "gizarteak erabat lanera bueltatzeko eskatzen dizu, gizarteak lanera bueltatzeko presioa eragiten dizu eta horrek konfliktuak sortzen dizkizu, "ez naiz pertsona eredugarria umearekin egotea erabaki dudalako".

Itziar. Gure amen generazioa, emakumearen papera etxean egotea izan eta gero, lanean hasitako lehena izan zen. Ikasketak, karrerak ditugun heinean, gure amei ez zaie ulergarria egiten lana utzi eta umearekin egotea. Momentu batez zure denbora zure seme-alabei eskaintzeak, jendeaiko antigoalekoa dela iruditzen zaio. Askotan esan didate "antigoalekora itzultzea" dela baina niretzat beste kontzeptu bat da. Umeak zer behar duen aztertu eta ama bezala berarekin egon nahi dudala erabaki dut, bikoiteak eta biok erabaki dugu.

Amak lana uztearekin tankeko konfliktuak sortzen direla kontuan hartuta, bilerako gizonetzko batek argi dauka aita batek lana utzi eta umearekin egotea ia pentsaezina dela, "ez gara uste bezain tolerantak", dio.



Iosu Iztueta Azkue
Bidaiaria

Inguruko bati hau galdetuko bagenio...

- "Tolosa herritik Nafarroako mugara errepidez iristeko, zein udalerriko lurrak pasako zenituzke?" - Beste galde-
ra batekin erantzungo luke-
- "Nondik joanda, Txaramatik edo Ibarratik?"
- "Ibarratik".
- "Baaaa... Ibarra, Berrobi, Elduain eta Berastegi".
- "Ez ba... Ibarra, Belauntza, Berrobi, (Eldua) Berastegi,
Elduain, Berastegi!"

Bidean

Berrobiko plazatik Berastegiko Eldua auzora



Leitza aldera doan errepidetik egin-
go dugu oraingoan Berrobiko plaza-
rainera (garraio publikoa badago), ibai
bazterretik goazenez berehala ikusiko
ditugu azken uholdeek (2011ko aza-
roa) eragindako kalteak. Beotibar zelaia,
Uranga paper fabrika ondoan...
urak jandako guneak nabarmetzen
dira eta hainbat mendi magal berde
gorrituta daude luizien ondorioz.

Berrobiko eliz ondotik aldapan
gora abiatuko gara, arropa garbitzeko
askaren ur soina entzunez hartuko
dugu eskuinaldera, kirol zelaia eta
frontoia bidearen azpialdean utzita,
goialdean beste "labadero" bat, hau
autentikoagoa, bertatik bertara Ber-
robizar baserria. Beheko ermitatik

datorren pista nagusia hartuko dugu
ezkerraldera aldapan, hau jarraitu eta
porlanezko pistak errebuelta egiten
duen lekura azalduko gara. Etxe txiki
itxurako ur depositua pasata sagra-
rondoak alde batera eta pinudia
bestera, aurreraxeago Loiola baserria.
Txukun daude hango bazterrak, "et-
nolorategi" antzera jarrita dago etxe
aurreko belardia.


Hurrengo bide gurutzean (argi
poste erreferentzia), eskuinera as-
faltzoko bidetik segi, zakur zaunkak
sumatuko ditugu eta hantxe bertan
hartzten da ezkerretara garai batean
Elduara zihoan bide zaharra. Basotik
goaz, historik gabe daude zuhaitzak
urte sasoi honetan, lurrean lokatza

eta orbela nahasian, errekatxo bat
pasa eta aurrera, altuera galdu gabe
alanbre itxituraren ondotik, luizi txi-
kia pasa, erreka garbia gurutzatu eta
handik gutxira bi pinu handi erorita
bidea oztopatzen, mendi puska etorri
zen goitik behera, hemen ere, udaz-
keneko euriteetan.

Elduako kanposantuaren aurrera
irtengo gara, oinetakoak gehiago zi-
kindu gabe ibiltzeko lekuan gaude.
Borda aldamean plastikoz estalita-
ko belarren ondotik asfaltzoko bidea
beherantz, Eldua bertaraino. Hemen
jaioa eta egun bertan bizi da "Eldu"
ezizenez ezaguna den Saturnino
Iztueta (91 urte) artzaina, ia 60 urte
egin zituen Zelatunen ardiak zain-

tzen, ez da harrizkoa izango hantxe
pasean ikustea.

Eldua (3'78 km²) Berastegi
(41'82km²) herriko auzoa izan arren,
ez du muga zuzena egiten Beraste-
girekin, mendi muinoan kokatutako
paraje ederra da Eldua. Bista politak,
eliza konpondu berria, baserri doto-
reak, baratza landuak, nekazalturis-
moa... baditu. Bestalde garai bateko
eskolak, negutegi abandonatuak
nostalgia apur bat ematen dio ingur-
uari. Iturri txiki baten ondoan daude
posta buzoiak, 16 alde banatar, 32
gutzira... askotxo hain jende gutxi
bizitzeko.

Herri kaskotik errepidez ordu
laurdenean, paper fabrika pareko
biribilgune berrira iritsiko gara, (Kal-
parsoro, Elduko papelera bezala eza-
guna zena orain Munsjo Paper da).
Hemendik Berrobiko plazara joateko
ezinbestean egin beharko ditugu
500 metro kamio bazterretik, han
Zelai erreka Gabitegi baserri ondoko
zubitik pasata lasaiago etorriko gara
herriko plazaraino. Galtzastegi, La-
patza, Urruti inguruarri erreparatuta
begi bistan dago nondik nora ibili
ziren urak azken udazkenean. Berro-
biberri aldikaria eskuratzeko mo-
duan bazarete, parajeotako argazki
beldurgarriak ikusiko dituzue. 



“Bodologuak”, otsailaren 3an Leidorren

Mikel Pagadizabal: “Nagore Aranburu gure Yoda da”

Datorren otsailaren 3an, ostiralean, Egoitz Lasa, Mikel Pagadizabal eta Nagore Aranburu Tolosako Leidorreko eszenatokira igo eta “Bodologuak” euskal umoredun antzezlanaren aurkeztuko diote Tolosaldeko publikoari. Egoitz Lasa eta Mikel Pagadizabal elkarrizketatu ditugu euren umorea gertutik ezagutzeko asmoz.

Naiara Roldán de Aranguiz

Pagadiri zein Egoitzi egindako elkarrizketa Zumaiako “Bodologuak”en saiora bidean egin zitzaizen, biak furgonetan sartuta kostaldera zihoazela. Haien dioten bezala “guk esan eta zuek barre egitera”.

Egoitz Lasa, Mikel Pagadizabal eta Nagore Aranburu euskal umorearen produk-

zioan ezagunak dira Euskal Herrian barrena, elkarrekin zein banaka lan egindakoak. Wazenmank, Noaua, Brinkola, Oilategia, Finlandia... asko eta asko dira euskal aktore hauek protagonista izandako lanak. Nagore gainera maisuki paper dramatikoetan ere luze arituta-koa, adibidea baino ez da “Urte



berri on, amona!" pelikula biki-
kainean eskaintako antzezla-
na.

Oraingoan ordea, Egoitzek
dioen modura "momentu di-
bertigarriak eskaintzera goaz
Tolosara, monologo eta ba-
karrizketak medio, publikoari
barre eginaraztera". "El Club
de la Comedia" formatu ame-
rikarrean oinarritutako saioa
da "Bodologuak", elkarrizketak
eta bakarrizketak uztartzen
dituena. Mikel Pagadizabalek
azaltzen duen bezala "formatu
bakoitzak lotura lana egiten du
Euskal Herriko kontuak konta-
tu ahal izateko".

Izan ere, saioan euskaldun
izateak sortzen dituen komeria
bat baino gehiago -euskaldu-
na izatearen burukominak, el-
karte gastronomikoak, euskal-
dunon oporrak, euskaldunok
eta teknologika,...- azalduko
ditu. Hala ere, aktore biak ziur
daude dagoeneko euskaldu-
nok gure buruaz barre egiten
ikasi dugula; hori ordea, hein
handi batean aurretik zerren-
datutako saioei esker ere lortu
dute orrialde hauetako pro-
tagonistek. Egoitzek horrela
deskribatzen du egoera: "ari
gara ikasten, arrazoiak baditu-
gu gure buruaz barre egiteko.
Guk erakutsiko ditugu eta zue-
kin konpartituko ditugu". Eta

Pagadik gaineratu, "guk esan-
dakoekin jendea identifikatuta
sentituko da".

"Bodologuak" publiko au-
rrean aurkeztu bitartean
egindako bestelako lanek "es-
perientzia" eskaini dietela dio
Egoitzek: "haiekin hasi ginen,
jendearengan iristen asma-
tu genuen eta oraingoan ere
gure umorea jendearengana
iristeko erabiliko dugu". Tele-
bistan edo irratian ez bezala,
oraingoan, publikoa aurrez
aurre izango du umorista hiru-
koteak. Aukera hori Egoitzek
dioen bezala "luxua" da. Pa-
gadik ordea "polita" dela dio,
"zuzenean ez dago trukirik",
gaineratuz.

Saioan murgildu aurretik,
aktoreak taula gainera igotze-
rako ezkontza batetik datozela
jakin beharrekoa da. Hori dela
eta, saioa Bodologo bihurtu-
ko zaie. Ezkontzek umorerako
aukera aparta eskaintzen du-
tenaren ustekoak dira aktore
biak. Egoitzek ezkontzetan
"mila egoera" sortzen direla
dio, "elegante jantzita egon
eta ridikulurik handiena egi-
teko aukera ematen dute", dio
sortzaile zarauzarrak.

"Bodologuak" Tolosara iritsi
bitartean eta Azpeitian es-
treinaldia egin zenetik, eus-
kal hainbat eta hainbat herri



-Azpeitia, Ordizia, Villabona,
Zumaia...- zeharkatu ditu
egundoko arrakasta eskura-
tuz, zenbait herritan saioak bi-
koiztu behar izan dituztela ere
azpimarratzen du Egoitzek.

Lantalde bikaina

Egoitz eta Pagadiren arteko
harreman onaz jabeturik eta
Nagoretaz hitz egiteko orduan
dioten miresmenaren testi-
gu, bakoitzaren ezaugarriak
goraipatzeko eskatu diegu.
Pagadiri eman diogu aurrena
hitza Egoitzetaz hitz egiteko,
umorez bere lankideak duen
onena "furgoneta" dela dio,
izan ere horretan doaz antzez-
penera. Ondoren, "serioago"
jarri eta honakoa dio: "profe-
sional ona da, lanean eta lane-
tik kanpo laguna da; luxua da
berarekin aritzea".

Ondoren, Egoitzen txanda
da Pagaditaz mintzatzeko:
"Parrak eta parrandak dira
Mikelek daukan onena, hor-
rretaz gain lanean makina
bat dela esan beharra dau-
kat". Elkarri botatako loreen
ondoren Nagoretaz hitz
egiteko beta eman zaie bie;
"guapa!" da atera zaien lehen
hitza. Jarraian maistratzat
ere aurkeztu dute euskal ak-
tore eta gidoilari azpeitiarra,
are gehiago, "gure ama" be-
zala deskribatu badu Egoi-
tzek, Pagadik "gure Yoda"ren
kalifikazioa eman dio. Billa-
bonatarrak Star Wars fikzio
kuttunena gogoan hartu
eta "historiako Jedi maisurik
handienetakoa"ren parera
jarri du Nagore Aranburu.
Aktore bien maisu eta ira-
kasle izandakoa da Nagore
Aranburu eta biek esanda
bezala "langile fina" izateaz
gain, harrituta ondorengo
gaineratzen dute: "eta gai-
nera, gurekin ondo pasatzen
omen du!".

Lantalde bikain honetaz
eta euren umore "elegante,
zorrotz, petral eta xelebreaz"
gozatzeko parada beraz da-
torren otsailaren 3an, arra-
tsaldeko 20.30ean, Tolosako
Leidor Aretoan izango dute
Tolosaldeko herritarrek.

irakurri entzun Ikusi

Beste larogei urtian
Bertsozale elkarteak

2012an 25 urte betetzen dira Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak sortu zenetik. 25 urte-tako ibilbide hori aztertu eta landu ondotik, Beste larogei urtian izeneko liburu eta DVDan bildu ditu Bertsozale Elkarteak. Alberto Barandiaran kazetari iruindarra izan da liburua eta dokumentalaren gidaria idatzi dituena. Horretarako mila txosten eta agiri irakurri ditu eta ehunka argazki eta bideo ikusi. 25 urteotan Elkarteak bazkide izan diren 40 lagun inguru elkarrizketatu ditu

Yau Samayaye
Lask abesbatza

Laskorain ikastolako haurrek beren eskolaz kanpoko abesbatza jardueraren barnean buruturiko proiektua da. Egitasmoa ez da musikaren alorrera bakarrik mugatu, ikasleek beraiek arduratu dira diskoaren diseinuaz eta bestelako lanez. Errepertorioa aukeratzeko orduan, herri musika izan da oinarri. Euskal gaiez gain beste hainbat herrialdeetako irakurketa berriak sartu dira. Kantu gehienak, Juantxo Zeberioi espresuki lan honetarako konposatu eta moldatutakoak dira.

Aita zombia naiz
Ricardo Ramon eta Joan Espinach

Haurrei zuzendutako animaziozko pelikula. Otsailaren 10ean estreinaldia. Goya Sarietan Animaziozko Pelikula Onenerako izendatua. Zombiek, sorginek eta gaueko bestelako pertsonaiek bat egiten dute magiazko istorio honetan. Dixiek, ume bihurriak, bizitzako arazoei aurre egiten ikasiko du.

hitzorduak

Otsailaren 3tik 17ra bitarteko

Antzerkia

Bodologuak. Txintxeta Antzerki Taldea. Otsailak 3, ostirala. Tolosa, Leidor. 20.30.

Mikel Pagadi, Egoitz Lasa eta Nagore Aranburuk ezaugarri duten euskal umore apartarekin, gaur egungo gai desberdinak astinduko dituzte bakarriketa nahiz elkarrizketa moduan.

Pailazoak

Pirritx eta Porrotx pailazoan emanaldia. Otsailak 3, ostirala. 18.00. Ibarako Belabieta kiroldegian. Subegi elkarteak antolatuta.

Kultur astea

Ibarako Uzturpe Ikastolaren Kultur Astea.

Otsailak 4, larunbata. 11.00. Jokoak eta jolasak. 3-8 adin bitartea. Tailer honetan parte hartuko duten guraso eta bere seme-alabentzat zuzendua. 15.00. Puzgarri eta aurpegi margoketa. 18.00. Txokolatada. 18.30. Alurr dantza taldeko gaztetxoan emanaldia.

Otsailak 5, igandea. Uli mendira mendi-irteera.

Santa Ageda

Santa Ageda eskea. Otsailak 4, larunbata. Ibarako hirigunetik barrena, parrokoak konposatuak antolatuta.

Santa Ageda bezpera. Otsailak 4, larunbata. 09.30. Ibarako

San Bartolome plaza. Hauspoa Kultur Elkarteak antolatuta.

Erakusketa

Kirikiño aisialdi taldearen erakusketa eta proiektzioak.

Otsailaren 5a bitartean. Tolosa, Kultur Etxea, areto nagusia. Aisialdi taldearen 25. urteurrena ospatzeko antolatutako argazki proiektzioa, urte ezberdinetako panelak eta taldearen inguruko dekorazioa.

Compagnie-Atelier Arketal. Otsailaren 12a bitartean. Txotxongiloak. Tolosako Topic aretoan.

Zinea

Otsailak 9, osteguna. Tolosako Leidor aretoa, 19.15 eta 21.45. Kimuak laburmetraiak proiektuaren baitan Koldo Almandozen "Ahate pasa", 12 min.

Kaldereroak

Musika Eskolako ikasleen kalderero kontzertua. Otsailak 10, ostirala. Tolosa, Leidor aretoa. 19.00. Sarrera doan.

Kalderero konpartsa. Otsailak 10, ostirala. 18.00. Ibarako San Bartolome plaza. Hauspoa Kultur Elkarteak antolatuta.

Anoeta. Kaldereroak. Otsailak 10, ostirala. 18.30. Anoetako plaza –euria egiten badu frontoian-. Kalejira egin ondoren, txistorra pintxoak banatuko dira plazan hurbiltzen diren guztiontzat.

Iñauteriak

Iñauterien aurreko haur jaialdia. Otsailak 11, larunbata. Tolosako Leidor aretoa, 17.00. Sarrera doan.

Berastegiko Iñauteriak. Otsailak 11, larunbata. 19.00, triki-poteoa eta 21.00, herri afaria.

Ostegun gizena. Otsailak 16, osteguna. Ibarako San Bartolome plazan, Uzturpe ikastolaren antolatuta.

Ostiral Meheko Jaialdia. Otsailak 17, ostirala. Tolosako Leidor aretoan, 22.30. 15 euro. Arpegik antolatuta.

Lizartzako Iñauteriak. Otsailak 4, larunbata. 12.00etan Iñauteriei hasiera eman gibelak dastatuz, udal ordezkariak eta txekorra plazan direla, ondoren antzerkia eta Otsolar dantza taldearen emanaldia. Otsailak 10, ostirala. 14.15 Mozorro festa eta kalejira. Otsailak 11, larunbata. 07.00etan hasita Diana abestuz Iñauterien hasiera, puske-biltzea, dantzari eta txantxoak elkarrekin ospetetik. 12.00etan mozorro, gurdi eta txarangen irteera. 13.30ean Iñauteri partaide guztiek kalejira, Arrateko zubitik eta jarraian bazkaria. 18.00etan Kalejira, sagardo dastaketa eta Lizartzako talogileen taloak. Otsailak 12, igandea. 11.00etan Agintari eta dantzariak Meza Nagusira txistulariek eskainitako "Agintari doinua"z, hamaiketako plazan. 13.00etan Lizartzako Ihaute Dantzak plazan, bazkaria, txaranga, jokuak, zozketak, sariak eta 20.30ean plazan "Ijitoa" errez Iñauteriei amaiera.

San Blas jaiak

Otsailak 2, osteguna. 18.00 Txupinazoa eta disko festa.

Otsailak 3, ostirala. 11.00 Meza Nagusia bertako produktuen bedekapenarekin, toka lehiaketa eta 18.00etan Trikitixa "Elustondo anai-arrebak".

Otsailak 4, larunbata. Ume jolasak, toka lehiaketa eta disko festa.

Otsailak 5, igandea. 09.30 Diana "Konpenezinak" txar-rangarekin, meza, Amarozkodantzariak, Unai Otaño eta Iñaki Azurmendi aizkolariak, Peñagarikano eta Mendiluze bertsolariak eta txikitixa "Elustondo anai-arrebak".

Hitzaldiak

Otsailak 3, ostirala. Anoetako Gaztetxea, 18.30. Euskal Herria Sozialistak antolatuta "Kapitalisten erasoan aurkako kanpaina!"

Otsailak 7, asteartea. Tolosako Otsabi Gazte Lokala. Euskal Herria Sozialistak antolatuta "Kapitalisten erasoan aurkako kanpaina!"

Dantza

Dantza-Soka Eguna. Anoeta. 08.30ean hasita plazan elkar-tu, baserrietara abiatu, dantza plazan, babarrun jatea Kuku elkartean, kalejira herriko trikitilariarekin eta Anoetako dantza taldeko gaztetxoan emanaldia eta erromeria Itzel taldearekin.

Langile eta langabetuentzat ikastaroak, doanik.

Lanbide eta Hezkuntza Sailak diruz lagunduak

Ikastaroaren izena	Hasiera data	Ordu Kopurua
Testu tratamenduen aplikazio informatikoa (Oinarriko Word)	2012.02.27	30
Lan eta ingurugiro arriskuen prebentzioa txirbil harroketa bidezko mekanizazioan	2012.02.27	30
CAD-2D (Autocad hastapena)	2012.02.27	40
Hozkailu fluordunen manipulazioa. Oinarriko maila.	2012.02.27	80
Mugikorrek eta Smartphone-ak: Industriara gerturatzera, joerak eta marketing-a	2012.02.28	10

Gure ikastaro eskaintza ezagutu nahi duzu?

Jo ezazu Tolosaldea GLHBiko bulegora.

Santa Luzia 17 - 20400 Tolosa

Telefonoa: 943.65.11.47 - 615.775.678

idazkaritza@tolosaldea.com
www.tolosaldea.com

info@ikastn.com
www.ikastn.com



Goardiako farmaziak

Ostirala, 3

Santamaria I.
(Nafarroa etorb.2)
Tolosa

Larunbata, 4

Etxebeste, Jesus
Gernikako arbola, 3
Tolosa

Igandea, 5

Lejeune, Leyre
Euskal Herria, 46
Ibarra

Astelehena, 6

Morant R.
(Zabalarreta, 1)
Tolosa

Asteartea, 7

Morant R.
(Zabalarreta, 1)
Tolosa

Asteazkena, 8

Bengoetxea E.
(Kale Nagusia, 7)
Tolosa

Osteguna, 9

Bronte C.
(korreo kalea 20)
Tolosa

Ostirala, 10

Bengoetxea E.
(Kale Nagusia, 7)
Tolosa

Larunbata, 11

Iturrioz I.
Euskal Herria, 3
Ibarra

Igandea, 12

Santamaria I.
(Nafarroa etorb.2)
Tolosa

Astelehena, 13

Olarreaga I.
(korreo kalea 2)
Tolosa

Asteartea, 14

Bengoetxea E.
(Kale Nagusia, 7)
Tolosa

Asteazkena, 15

Morant R.
(Zabalarreta, 1)
Tolosa

Osteguna, 16

Morant R.
(Zabalarreta, 1)
Tolosa

Ostirala, 17

Olarreaga I.
(korreo kalea 2)
Tolosa

Telefono interesgarriak

Alegia-Amezketza-Abaltzisketa-Albiztur	Gernikako Arbola,hitzor	943 006 900
Osasun zentroa	Amarozko dispensarioa	943 672 637
Altzo	Asunzion klinika	943 675 799
Medikua	(larrialdiak)	943 675 390
Anoeta-Alkiza-Hernalde	San Kosme San Damian	
Medikua	geriatrikoa	943 672 932
Baliarrain	Udaltzaingoa	943 675 858
Medikua	Ur eta Argia (Tolargi)	943 650 016
	Ur zerbitzuak (aberiak)	639 352 156
Berastegi-Elduain	Iurreamendi egoitza	943 670 325
Medikua	Larrialdiak, Suhiltzaileak	112
Bidegoian	DYA	943 672 536
Medikua	Gurutze Gorria	943 674 888
Ibarra-Belauntza-Berrobi-Gaztelu-Leaburu		943 651 425
Osasun etxea	Ertzantza	943 673 022
Ikaztegieta	Tolosa Gasa	943 675 320
Medikua	Lizartza	
Irura	Medikua	943 682 077
Osasun zentroa	Orendain	
Tolosa	Medikua	943 655 595
Anbulatorioa, larriald.	Orexa	
San Esteban, hitzordua	Medikua	943 682 228

Galtzaundi 357
12ko otsailak 3



Nafarroa etorbidea, 13-behea
20400 Tolosa
Mobila: 670 417 922
Tel./Faxa: 943 650 313

ARTESANIA
ZUEN TZART
*eskuz esku
arrunta berezi bihurtu!*

BERNIKA, 4 TOLOSA
ARTESANIAZUENTZART@EUSKALNET.NET
TEL. 943 650 359

TINDATEGIA
KATZ
Laskorain kalea • TOLOSA
Tel.: 943 652 618

ARALAR KIROLAK
Laskorain, 7 • TOLOSA
Tel.: 943 654 916

Muxutruk

Lana

• Ordenagailuak konpondu eta eguneratzen ditut, datuen berreskurapenak merke eta etxerako zerbitzua. 644 453 621

• Ingelesko klaseak bakarka edo taldeka. Maila desberdinak. Irakasle tituluduna. 664.16.02.68

• Sukaldari edo zerbitzari laguntzaile gisa lan bila nabil. Homologatutako titulua daukat. 671 44 66 15.

• Hortz-protetikotitutuduna lan bila. 671 44 66 15.

Etxebizitza

• 60m²-ko pisua salgai Berazubín. Egongela handia, bi logela, sukaldia eta komuna. Berritua, berogailua, sartzeko prest. 616 278 843

• Pisua salgai Errementari kalean, 42 m² eta erreforma egiteko. 620 129 295

• Ikaztegieta 100 m²-ko 5. pisua salgai. 3 logela, sukaldia, egongela, komuna eta 2 trastero. Balkoi handi eguzkitsua. 637 914126

• Usurbilgo kaxkoan pisua salgai. 2 logela, sukaldia, sala, komuna eta trasteroa. Dena kanpokaldea, hiru balkoi, eguzkitsua eta bista onekin. 240.405 Euro.- Premiazkoa da saltzea!! Tlf: 686969112

Salgai

• Quads-a salgai. Gasgas K2 250 c.c. 2055 urtekoa, 2 laguntzako homologatua. Prezio interesgarria. 618 254960. Ariz.



aries

Martxoak 21-Apirilak 21

Egoera nahasiak eta ulertzen zailak direnak jasango dituzu. Bolada batez oztupoak baino ez dituzu ikusiko. Hala ere, baikortasunez aurre egitea izango da onena, ustekabeko aldaketak datoz.



taurus

Apirilak 22-Maiatzak 21

Energiaz gainezka egongo zara, inguruak baikortasunez ziprztinduko dituzu. Bestetik, egun hotzak datoz eta zuri tenperatura altuetan murgiltzea gustatzen zaizu. Osasunean bere eragina izango du honek.



gemini

Maiatzak 22-Ekainak 21

Bi paretan artean sentituko zara. Alde batetik, dena pikutara bidali eta nahi duzuna egiteko gogoia izango duzu eta bestetik erantzukizunez egoerari aurre egin eta lanean murgiltzea besterik ez zaizu burura etorriko. Osasuna bikain.



cancer

Ekainak 22-Uztailak 22

Maitasunaren beharrea bazabiltza egun hauetan helduko zaizu. Egun zoriontsuak, gehien maite zaituztenak ondoan izango dituzu, barreak ez dira falta izango. Nahi duzuna eskuratuko duzu, ez izan zalantzarik aholkua eskatzeko.



leo

Uztailak 23-Abuztuak 22

Garai bateko kontaktuekin harremanik ez izatea proposatu diezue zure buruari. Erabakitzeke duzu; adeitsua izatea edo gustuko ez duzunekin kontakturik ez izatea. Batzuetan burua makurtzea egokituko zaizu.



virgo

Abuztuak 23-Irailak 22

Oso urduri egongo zara, gertatu ez denagatik urduri jartzeko ohitura duzu, egun hauetan lan kontu batek buruhausteak ekarriko dizkizu. Kontua seriooki hartu eta pentsamendu ezkorak alboratzea geratzen zaizu.



libra

Irailak 23-Urriak 22

Bizitzako arlo ezberdinak orekatzen ahalegintzen zara. Hala ere, erabateko oreka zaila izaten da eta nahi den oro eskuratzea are zailagoa. Kontuak beti nahi bezala ez dira ateratzen eta ezkor pentsatuz gero, are gutxiago.



scorpius

Urriak 23-Azaroak 22

Azkenean barealdia iritsi da. Etxeaz eta etxeko konpainiaz gozatuko duzu. Arnasa sakon hartu, gertatuko pasa da eta lasaitasunez aurrera egitea dago-kizu. Hala ere, aldaketaren bat iristeke dago.



sagittarius

Azaroak 23-Abenduak 21

Adiskidetasuna zure bizitzako balio garrantzitsuenetarikoa da. Gertuko pertsona batek traizioa egingo duzu, barkatzen ahalegindurik ere zaila egingo zaizu. Mesfidatia zara eta hemendik aurrera are mesfidatuago bihurtuko zara.



capricornius

Abenduak 22-Urtarrilak 20

Indarrari eta energiari esker aurrera egin duzu. Harro zaude eskuratutakoaz. Hala ere, tentuz ibili indarrak huts egiten has daitezke eta. Egoera iluna bada ere, amaiera arte sakrifika-tzen badakizu.



aquarius

Urtarrilak 21-Otsailak 20

Egindako huts egiteak ez dituzu ikusten eta besteie errua botatzeko joera duzu. Ezin duzu jarrera horrekin jarraitu, biktima papera albo batera utzi beharko zenuke. Azalpenak entzun beharko zenituzke.



piscis

Otsailak 21-Martxoak 20

Besteekiko ikuspuntu zeharo ezberdina izan oi duzu. Honek eztabaida bat baino gehiago sortuko dizu lan giroan. Argudioak emateko garaian gozoagoa izan beharko zenuke. Egoera berriak datoz.





GORENAK



ISASTEGI
sagardotegia



TXOTX

Urtarrilaren 14tik
Apirilaren 28ra

Aldaba Txiki Auzoa 20400 Tolosa
Tel: 943 65 29 64 Fax: 943 65 56 32
isastegi@isastegi.com
www.isastegi.com



Ostiral, larunbat
eta igandetan bazkariak
Asteartetik larunbatera afariak

Usabal auzoa 25 - Tolosa
943 672 613



LARRE-GAIN

Bertako sagarrarekin
egindakoa



Larre-Gain baserria, Ereñozu Auzoa. 20.120 Hernani
Tel. 943 55 58 46 - Fax. 943 55 58 46



Berdintasunabat

TOLOSAKO



UDALA

2012

MUNDUA BUKATUKO DA AKASO
TOLOSAKO INAUTERIAK INOIZ EZ
zatoz eta ondo pasa gure artean!

